

Elissalde eta Etchepare. Apaiza eta medikua gerra-kronikari

(Elissalde and Etchepare. A priest and a doctor war journalists)

Urkizu Sarasua, Patri
Eusko Ikaskuntza
Miramar Jauregia. Miraconcha, 48
20007 Donostia

BIBLID [1137-4454 (1997), 14; 35-46]

Jean Elissalde eta Jean Etchepare, apez eta medikua, euskal idazle ia ezezagunak izan arren maisu handiak dira prosagintzan, beren Lehen Mundu-Gerrako kroniketan adierazten duten bezala. Kronikaok Baionako Eskualduna astekarian argitaratu ziren eta berriki Piarres Charritonek (Elkar, 1992), eta Patri Urkizuk (Alberdania, 1995) plazaratu dituzte ezaugarri gisara.

Giltz-Hitzak: Lehen Mundu-Guerra. Elissalde. Etchepare. Euskal idazleak.

Jean Elissalde y Jean Etchepare, cura y médico respectivamente, autores casi desconocidos, cuentan en una prosa éuskara magnífica sus experiencias personales y meditaciones sobre la 1ª Guerra Mundial. Estas crónicas y comentarios se publicaban en el semanario Eskualduna de Bayona, y han sido recopilados y estudiados recientemente por Piarres Charriton (Elkar, 1992), y Patri Urkizu (Alberdania, 1995).

Palabras Clave: Primera Guerra Mundial. Elissalde. Etchepare. Escritores vascos.

Jean Elissalde, prêtre et Jean Etchepare, médecin, auteurs peu connus, narrent leurs expériences et méditations sur la Première Guerre mondiale à travers une prose basque de grande qualité. Ces chroniques et commentaires publiés dans l'hebdomadaire Eskualduna de Bayonne ont été récemment complétés et analysés par Pierre Charriton (Elkar, 1992) et Patri Urkizu (Alberdania, 1995).

Mots Clés: Première Guerre Mondiale. Elissalde. Etchepare.

Eta Zerbitzari hor zagon, denen erdian, gehienetan ixilik, galerna altxatzerat zoalarik, ditxo batez jabaltzen zuela, edo botoila bat harturik, edari xorta batez sua ezitzen zuela.

*Zer etxeko-jauna! Zer adixkidea!*¹

(Michel Labéguerie)

HORRELAXE aurkezten zigun Michel Labéguerie mediku, idazle, kantari ospetsu eta *Eskualtzaleen Biltzarraren* presidentak **Jean Elissalde “Zerbitzari”** (Azkaine 1883- Gerezieta 1961), honen ehorzte-egunean. Halaber, Aingeru Irigaray² honako laudorioz hornitzen zuen gure tartetik joan zenean : *Euskalzale beroa zen eta bai pilotaria ere. Bera eta Oxobi³ izan dire 30 urte horietan, iparraldeko gure anaien euskal eragille eta sustatzaile goren, sutsuen eta jarraikiak. Ez zen nolana hiko, bada, huraxe, eta hona hemen aurkeztera goazen idazleak bere buruaz eta izengoiti az utzi zizkigun zertzeladak:*

Jean Elissalde Azkaindar apez zaharrari, nundik etorria ote Zerbitzariren izen hori? Huna. Mila-bederatzi-ehun-eta-hamalaueko gerlan, behin Hiriart-Urruty jaun kalonjeari eskutitz bat igorri zion, adixkide gisa, gerlako berriekin eta bere eskutitza bururatu, esku-titz guziak egiten diren bezala “Zure Zerbitzari, J.E.”. Hiriart-Urruty jaun kalonjeari iduriturik berri horiek atsegin eginen zutela “Eskualduna” orduko asterokoaren irakurtzaileeri, ondoko astean ager-arazi zituen, Zerbitzari doi-doi izentzat utzirik. Aintzinean han-hemenka zenbeit lan ttipi balinbazuen eginik, eta agerazaririk, erran ditake geroztik hedatu zela Zerbitzar⁴.

Azkainen eta Larresoron lehen ikasketak egin ondoren, Baionako ikastetxe nagusian zelarik hasi zen idazten Hiriart-Urrutik bultzaturik. Zerbitzarik aski maite izan zuen izenaren berritzea, nonbait, eta hala asmatu zituen *Lurtchuri, Azkaindarra, Bilharia, Haur prodigoa* eta *Normahi* bere idazlanetarako, berezi nahiz idazlea eta apezka, edo hau estali gogoz, antza.

Lapurtera garbiaren zale, zuberera eta baxanafarrera ongixko ezagutu arren, Liginaga eta Mendiondon egon baitzen urtetan erretore gisa, ez zetorren bat Lafitte proposatzen zuen nafar-lapurtar nahastearekin. Iratzederrek kontaktzen digunez, behin elkar agurtzean, *Biziki ongi*, erantzun ziolarik, Elissaldek bekokia ilun, haserre amorratua ihardetsi omen zion: *Errazu arras ongi edo biziki untsa, baina ez biak nahas⁵.*

Ez zen horregatik haserretu Lafitte, eta berberak heriotze ondoko goresmenetan hona-koxea zioen:

Eskuara bazerabilan nehork ez bezala; errexa, lainoa, garbia, pollita [...] Ez zen gramatika- zalea porrorik ere, bainan bazuen beharri: laborari zaharrekin mintzatuz barrandan zagon heien hitz eta hizkuntza berezieneri, eta gero paper batzu eta markatzen zituen ez ahanzteko⁶.

1. “Zerbitzari jaunari, Agur, Esker, Othoitz”, *Gure Herria*. Baiona, 1961.

2. *Egan*, Donostia, 1961, 110.

3. Jules Martin Moulier “Oxobi” (1888-1958) . Ik.: *Oxobiren lan orhoit-garri zorbait*. Ed. Jean Haritschelhar. Cordeliers, Baiona 1966.

4. Jean Elissalde “Zerbitzari”, *Azkaine gure sorteria*. Ed. Piarres Xarriton. Elkar, Donostia, 1985, 71.

5. Luis Villasante, *Historia de la literatura vasca*. Ed. Aranzazu. Oñate, 1979, 423.

6. Piarres Lafitte, “Jean Elissalde jaun apezka Jainkoak bereganatu”, *Herria*, 11 Mai 1961.

Herri xehearen euskara maite zuela ez dago dudarik, horixe adierazten baitute bere lan guztiek, eta honelako egitasmoak aurkezten baitzuten Euskaltzaindiko sarrera irakur-aldian:

Jo dezagun lasterka lehen atxo xaharraren ganat eta othoizka galde dezogun: Amatto, zer erraten duzu honi? Amatto, zer erraten duzu horri? Eta amattok erran izena lapitzaz ezar berehala paper muthurrean...eta paper muthur hori hel guzietarat heda dezaken norbeiti. Herri guzietan, Jainkoari esker, norbeit atxeman ditake oraino Eskuararen alde zerbeit egin nahi duenik!?

Eta hor ditugu euskara samur eta erraz horretan burutu zituen zenbait liburu eta lanen titulu hauek lekuko gisa:

1. *Kantari berria*. Foltzer, Baiona, 1920.
 2. Artho churitzetan. *Gure Herria*, 1921-22.
 3. Eskual-herriko hegaztinak eta choriak. *Gure Herria*, 1923-26.
 4. *Ama Maria Pasionekoa*. La Presse, Baiona, 1930.
 5. Eskual Herriko landareak. *Gure Herria*, 1931-35.
 6. *Euskal Egutegia 1933*. Baiona, 1932.
 7. *Bi gogorak*, antzerkia. *Gure Herria*, 1932.
 8. *Atsotitz, Zuhur-hitz eta Erran Zahar*. La Presse, Baiona, 1936.
 9. *Bahnar deithu Salbaia*k. Courier, Baiona. 1936. P. Dourisboure mixiolari bezkoiztarren Kotxintxinako abenturen itzulpena.
 10. *Ichtorio Saindua. Testament zaharra. Jesu-Christo. Eliza*. S.I.L.I.C. Lille, 1943.
- Etabar.

Metodo berdintsua, alegia ikusten zuena lapitzez jasotzearena, esan dezakegu erabili zuela, gerra kronikagileen gisara Hamalauko Gerla Handia kontatzeko (*Lapitzak ez dauzku izen guziak paperean atxiki...*).

Aipatu dugunez lehen kronikak gerra hasieran eman zituen, eta honela izendatu zituen: "Gerlarien berri", "Han hemenka" eta "Alemanak hurbiletik" bertan gerraren zertzelada frango agertuz.

Hona nola hasten zen lehena (*Eskualduna*, 1914-X-16an):

Frantzian, gerla tokitik

Jaun kazeta-egilea,

Huna, nahi baduzu, Eskualdunarentzat, gerlaz bi lerro. Kazeta egileak eta gerlariak ez dituzte naski gauzak begi beraz ikusten; nik ikusten ditudan bezala ontsa bazauzkizu, Eskualduna maitean ezarriko dituzu; bertenez bota surat.

Guzieri hemen, hauxe zauku: gerlak hainitz irauten duela. Zoin gure etxetarik, Baionako, Tarbeko edo Bordeleko kazernetan sartu ginelarik...

Eta honela bukatzen zuen: *Bertze Gerlarik hasteko gutizia khenduko diotegu behingotz*. Ez zituen, beraz, estimu handitan bere lehen idazti haiek, dirudienez. Baina esan bezala Hiriart-Urrutyk bultzaturik hasi zen emanez gerrako berri zehatz-mehatz *Eskualduna* aste-arian, bere albisteak St Pierrek osatzen eta irakurleak gose handiz eta gogo biziz irensten zituelarik. Hala esate baterako 1916-X-13an Arruzko erretorak idazten dion gutunaren hasiera:

7. *Euskera*, 1931, 71.

Jaun Zerbitzari:

Oxala Frantziak bere soldado guziak zu bezen haz errexak balitu! Ezen zure erranen arabera, biltzen duzunaz bertzalde, guti aski du zure hazteko...

Idatz-lauz ez ezik, bertso mordoxka ere paratu zituen gerraz, hala nola GURE IRRINTZINA (*Eskualduna*, 1914-XII-18) titulupean Azkaindarrak Gerla Tokitik bidalitako hamar bertso gerlako lagunaren ohoretan. Euskaldun soldadoaren apologia dira, eta hona nola bukatzen den azken bertsoa.

Eskualdunak, goazin, goazin aintzina,
Herritik urruntzeko Aleman zikhina,
Ondoko egunetan guretuz "Berlina",
Gora eginen dugu gure irrintzina!

Tokitan gelditu ziren, ordea, gerran lagunak hiltzen zihozkion arabera animo, balentria eta espantu haiek. Eta, noski, beste eratakoak izango dira GERLA ONDOKO GOGOETAK (*Eskualduna*, 1920) deitu bertsoak, hauetan beste hauek irakur baititzaizake:

Ezin sinhetsia da gerlako modua.
Gerla tzarra nork maita, ez bada itsua!
Han deus ez da ageri baizik eta sua:
Sua hemen, han sua! kasik ifernua!

Europako literaturetan Lehen Gerrate Handi honek oihartzun ugari utzi izan digu, bai aliadoen, bai ejekoen bai eta neutralitatea hautatu zuten herrialdeko idazleen artean. Hemen aipamenak egiten hasteak luze joko bailiguke, euskal esparruan gertaera hunkigarri hark nola irudimenak eta lumak piztu eta zorroztarazi zituen aitakoko dugu bakarrik. Hor ditugu etsenplu batzuk ezin ahantziak, adibidez, Ebaristo Bustinza "Kirikiño" bizkaitar idazlearen kronikak berriki Xabier Perea bilduak⁸, hala nola Jean Barbierren *Piarres* eleberria, berriki Euskal Klasikoak bilduman argitaratua Ramon Sanchez-en eskutik⁹, Jean Etchepareren gerra kronikak Piarres Xarritonek prestatuak¹⁰, eta Jean Saint-Pierre-renak¹¹ prestatu bide omen dituenak, baina dakidala, oraindik argitaragabeak, besteen artean.

Elissalderen BERROGOITA HAMAZAZPIGARRENA GERLAN izeneko kronika *Eskualduna* aldizkarian hamahiru emanaldiko fruitua dugu. Lehen emaitza 1936. abenduaren 25ean agertu zen eta honela hamabostean behin aldizkatuz, eta noizbehinka hutseginez, azkena 1937. abuztuaren 20an eskaini zigun, honela zinatzen zuelarik: *Gerlari bat / P.C.C. / Jean Elissalde / Zerbitzari*.

Ez da luzatzen Zerbitzari deskripzio gehiegitan, gaiari xuxen-xuxen heltzen dio, luza-mendurik gabe. Euskaldunen arteko adiskidetasuna, pilota jokoak bonbak erortzen diren artean, mus kartaketak, eta ostatuko kantzak aipatzen baditu ere laburzki izanen da. Ezagunen bat delarik ere, gudari ausarta Mgr. St-Pierre-ren kasuan bezala hitz guttiz eman-

8. Ebaristo Bustinza "Kirikiño", *Guda Nagusia 1914-1918*. Ed. Xabier Perea, Labayru, Bilbao, 1989.

9. Jean Barbier, *Piarres*, 2. T., Baiona, Gure Herria, 1926, 1929, 2. ed. R. Sanchez, Ibaizabal, 1993. T.1.

10. Jean Etchepare *mirikuaren idazlanak*. IV. *Kazetaritza* (B), Piarres Xarritonen edizioa. Elkar, Donostia, 1992, 5'226.

11. Jean Saint-Pierre "Anxuberro" (Milafranga, 1884-1951). Baionako apaiztegiaren irakasle, preso Lehen Mundu Gerran. *Gure Herria*-ren sortzaile (1921) eta zuzendari. *Euzkadi*-rako idazten zuen, apezpiku, eta euskaltzain osoa (1949-51). Ik.: *Les meilleurs pages de M.M. Saint-Pierre*. Ed. Pierre Lafitte, Le Courrier, Baiona, 1952.

go digu irudia: *maldaren punta puntan frantses banderaren landatzen ikusi ginuelarik soldado bat.*

Eta Zerbitzari soldado gisa mintzatuko zaigu ia beti. Horixe da, hain zuzen bere berezitasuna konparatuz Jean Barbierren *Piarres* eleberriarekin. Honen bigarren partea hiru aldiz lodiago delarik, hiru aldiz ere astunagoa da, honi apaiza eta latinkeriak noiznahi agertuko baitzaizkio, ez ordea Zerbitzariri. Bientzat alemanak *tzarrak* dira, *gaitzak eta zoroak* Zerbitzarirentzat, eta *etsai, listafin, atrebitu eta koko-beltzak* Barbierentzat. Euskaldunak bien-tzat soldadurik hoberenak, baina oso errespetatuak izan arren hona nola tratatzen dituen mando batek:

- Hé, là, qu'est-ce que vous dites dans votre diable de basque?
- Oh! rien, rien, mon liéténant... que le temps il en était choliment bilain!¹²

Sic, frantsesez Barbierren obran. Ez da harrigarri gero desertoreak gertatzea mugakoen artean.

Baina esan bezala, askoz arinagoa da Elissalde, gerra irudien aurkezpena, eta noiz-pehinka erretrauz josia, Verduneko ifernua haatik ilun eta goibel ageri zaigu: *zer errabia beltza..., kukuak makhur jo zioten..., ulia bezala zoan gizona lurrerat...geronek bi hil eta zenbait kolpatu..., Jatxu eta Haltsu bigak igualtsu..., beldurra zamari eta gose-egarriak bideko lagun...*

Bigarren aldiz, hau da, 1936.an hasten denean, oroitzapenxkak berridazten, hogeibat urte iraganak izan arren bizi-bizi ditu oraino gogoan eta fidelitatea honen adierazle ditugu jasotzen dizkigun garaiko zenbait esamolde, hala nola, *minerwerfer* debruak, *flammenwerfer* direlako su igortzaileak, *crapuillots-ak* -lubakietako morteroak-, *Franzosen Kaput...* eta horrelakoak noski, egiantza ezinbesteko, errealismo osoa ematen diotenak kronikari.

Bildu zituen eta aipatu dugun *Atsotitz, Zuhur-hitz eta Erran Zahar-ei* (1936) egin aintzin-solastxoan dioenez, "xaharren atsegingarri, gazteen argitzaile!" nahi zuen izan zitezen, atse-dena eta irakaskintza, beraz, literaturaren betiko bi helburuak uztartu nahian ematen dizki-gu.

Oraingoan, ordea, lehen aldian baino patxada handiagoz, eta ez oso gogoz, *Eskualdunak* hala eskatu ziolako baizik, saiatuko zaigu lapitza zorrotzuz gertakizun latz haiek apaintzen. Eta bere estilo berezian badu aberastasunik. Ez du errepika maite; hala, ibili herri arrotz haien izenak ematerakoan honelako aldaerak irakur ditzakegu:

*Lorraina deitu eskualdean...,
Valmon delako herrixkan...,
Sambre deritzan...,
Cherresis-les-Dames delakoan...,
Bataille de la Marne erdaraz erraten dioten...,
Le salon de L'eloquence erraten zioten...,
Compagnies Disciplinaires famatuak...,
Chemin des Dames hain ezaguturat...*

Hona bada zortzi era ezberdin lotzeko frantses deiturak euskarazko solasarekin, eta horrelaxe aldaera hauek emanik eta, erderakada gordinak saiheztuz, irakurleari prosa arin, aldakor eta atsegina egiten zion bitartean, euskal izpiritua mantentzen saiatzen zen.

12. Jean Barbier, *Piarres*, T.II, Baiona, 1929, 84.

Kronikez aparte idatzi zituen esan bezala Guda Nagusiaz zenbait bertso, hala nola DESERTURRAREN AUHENAK (*Kantari Berria*, 1920), alegia, gudatik desertatu duenaren penak bertsoan. Hona laugarrena:

Kolpatua igorri ninduten sor-lekhuan sendatzerat:
Orduan gizon bat ethorri zen ondikotz nere galtzerat.
Solaz ederrekin eman zautan diru phuska bat eskurat.
Eta ni xoratua iragan mendiz-mendi desterrurat...

Deserturraren bidea desterrurakotzat joko du, beraz Elissalde. Eta Piarres Lafittek idatzitako *Egiazko Argia, azken gudako gertakaria*¹³ antzerkian ere desertorearen irudia ageri zaigu. Inaxio kontrabandan dabilenak bere anaia Piarres tentatuko du, baina Domingo honen lagun apaizgaiari kasu eginez gerrara itzuliko da. Hemen dagoela emaztea hilen zaio eta bera itsu geldituko. Itzultzen da herrira fedea galduta eta bere buruaz beste egiteko asmoz; baina etxean eta semearengan aurkitzen duen berotasunak bere ideia gaiztoa kentzen diote eta Egiazko Argira itzultzen da.

Dena den, esan dezakegu Larzabalek dioskun bezala, *aren pertsuak ez direla ain ego-kiak, nola baitira aren kondaira laburrak*¹⁴.

Eta luzetak direnak areago, gure uste apalez, eta horrexegatik argitaratu berri dugu kronika hori Alberdania argialetxean. Bestalde nahiko lukeenak dastatu oraindik zerbait gehixeago Zerbitzariren prosa arin, errex, garbi, pollit eta umorea aurki ditzake arrastorik Emile Larrek¹⁵ ematen digun zerrendan.

JEAN ETCHEPARE BIDEGORRI (Mar Chiquita, 1883 - Kanbo, 1935)

Mar Chiquita, Buenos Aireseko probintzian jaio zen 1883. urtean. Beraz sortzez arjentinarra dugu Etchepare, baina sei urte zituela Euskal Herriratu zen eta geroztik hemen bizi. Halere tiki-ttikitako lehen irudiak, lur-zero bereziak ez zitzaizkion inoiz burutik joan esaten digunez: *Ez da deus garbiagorik ene buruan. Askotan banago ere kokatzen duenetz bertzerik. Gogoia bethea daukat orduko zerez. O haurreko egun berriz jinen etzaretanak, zuetarik dut bihotzean nere bizi aphurrak eman dauketan gogorik hoberena*¹⁶.

Euskal Herrian, Ameriketarik etortzean Lekorne-Erlandenean kokatu ziren. Eta Larresoroko seminarioan egin zituen lehen ikasketak, hemen ezagutu zituelarik Abbadie, Adema, Hiriart-Urruty etabar.

Hamazazpi urteki badihoa 1894. urtean Bordelera medikuntza ikastera. Eta hemen Lafittek eta Onaindia literatur kritikariek esaten digutenez Haeckel eta Nietzsche bezalako idazle kiratsak irakurri zituen, fedea histu zitzaiolarik.. Doktoretzako tesia burutu zuen *Quelques remarques sur le Joueur de Pelote* izenburuko lanarekin. Hogeita lau urte zituen. Lekornen lau urte iragan eta Aldudera joan zen hemen beste hogeit bat urte luze iraganik, hemen udaletzeko kontseiluan sartu zutelarik.

13. Piarres "Iturralde" (Lafitte), *Egiazko Argia, azken gudako gertakaria*. Gure Herria, 1927, 104-113, 302-309, 494-503. Eta gipuzkeraz emana: Antzerki 14-15. Tolosa, 1933.

14. Piarres Larzabal, "Euskaltzaindian sartzeko mintzaldia", *Gure Herria*, 1963, 330.

15. Emile Larre, "Iparraldeko herri-ipuina idatziak", *Euskera*, 1992, I (2.aldia), 463-475.

16. Jean Etchepare, *Buruchkak*. Pierre Lafitte-n "Aintzin-solas" batekin eta egileak Pierre Etchepare bere anaiaz moldatu lerro-alde batekin. Gure Herria, Baiona, 1936, 6.

Eskualduna aldizkarian 1902az geroztik hasi zen idazten Erresumen arteko gora beheretz, Frantzia barneko politikaz, diruaren gobernatzeaz, jakintsuen asmo berriez, etxeko osasunaz, Euskal herriko gertaerez, etabar, beti euskara garbi eta eder batean. Lan guzti hauek bilduak dizkigu Piarres Charritonek¹⁷.

1904-tik 1914ko gerra piztu arte urtero bere anaia Pierre-kin Etcheverryk 1848an sortu-tako *Eskualdun laborarien almanaka* argitaratu zuen bere luma hantxe zorrozten zuelarik.

1910-ean liburu bat agertarazi zuen, *Buruchkak*¹⁸. Eta Lafittek komentatzen digunez liburu honek adixkide gehienak harri eta zur utzi zituen, bapo eta eder izan arren bi kapitulu hits omen zituelako. Batean apezten eskolen kontrakoa, eta bestean ausartzia guztiak bilduz, amodio garbia eta beste edozein berdin haizu jotzen zituelako. Noski, zer esanik ez dago, berak bere liburua bahitu beharrean aurkitu zela oso adiskide minei soilik aleren bat emanez, eta Lafittek 1936an berrargitaratu zuenean liburua, bi kapitulu ausart eta lizun horietaz arindurik plazaratu zuela.

Guda iritsitakoan hantxe parte hartu zuen bonbardeaketa bortitzenen pean bere betebeharrak ongi baino ongiago betetzen “Medecin-Aide-Maior de 1re classe du 172e Régiment d’Infanterie” bezala, alegia, oinezkoen mediku gisara. Baina ez zion idazteari utzi, eta hortxe ditugu *Eskualduna* aldizkarian barreiaturik bere iritziak, orain Xarritoni esker bilduak.

Gerla amaitu eta ezkondurik Kanbon jarri zen mediku eta berriro sutsu euskarazko ekimenei helduz, 1922-26ko epean Euskaltzaleen Biltzarra-ko zuzendari izanzen dugu. *Gure Herria* hainbat eta hainbat lan argitaratuko ditu ere, eta 1931an *Beribilez* liburuxka argitaratuko digu¹⁹, euskaraz idatzitako bidai libururik lehenetarikoa eta pollitenetarikoa.

Atzenez, 1935eko urtarrilaren 9an eri baten etxera deitzen dute, joaten da laster, bere ohiko txapelarekin eta han bertan erriaren etxean erortzen da. Bihotza gelditua du, hila da. Medikua soldado gisa bere frentean, alegia, erriaren ondoan.

Eta itzul gaitezen orain gerlaz zioena aztertzeraz. 1916an hasten da *Eskualduna*-ra bidaltzen *Gerla Tokietarik* bere lantxoak, eta hiru urtez jarraian gainera. Hemendik aurrera ematean aipamenak eta orrialdeak Xarritonek egin edizioarenak (1992) izanen dira. Etchepare, beti euskaltzale zelarik, eta hauetarik gehienak bezalaxe hitz berrien sortzaile edo proposatzaile frantsesez “*tranchée*” deituak, *lubakiak*, Elissalde *errekak* eta Barbierrek sator zuloak izendatzen dituztenentzat berak proposatzen duen hitza *gerla-karikarte* edo *gerla-karrika* dira. [20]

Ez du gerraren irudi faltsurik eman nahi eta kazeta zuzendariari idazten dionean honela esango dio:

Atseginekin igortzen dauzkitzut hemengo gerla berriak, hantu ez ttipitu gabe, daktalarik, eta ene irakurleek ere badakitelarik hemengoez bertzela ditazkela hainitz eskualdetakoak. [38]

Jakina denez 1916ko otsailean hasita urte osoa Verdun-eko infernuan gudu izugarri, higuigarriak gertatu ziren, bertan 700.000 hil gelditu zirelarik, frantses eta alemanak erdizka hortxe nonbait. Baina ez ziren soilik frantses eta alemanak gerlan ari, bai baitzizuten beren lagunak kontatzen digunez:

17. Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. 4 T. Edizio prestatzailea Piarres Charriton, Elkar, Donostia, 1984-1992.

18. Jean Etchepare, *Buruchkak. Lekornen eta Alduden*. Mame, Tours, 1910.

19. Jean Etchepare, *Beribilez*. Lasserre. Baiona, 1931. 2. edizio prestatzailea M^a Jose Kerejeta. Klasikoak 17, Elkar, Donostia, 1987.

Halaber gure lantegietarat bildu ditugu gure kolonietako ume zonbait: Annamita eta Kabyla. Bai eta, nork behar zuen erran? Bortz-mila Xino, guziak haatik gerla ondoan bere sor-herrirat itzultzekotan, nahi badute edo ez. [59]

Etchepare mediku delarik oso gutitan mintzo da honi dagozkion gauzetaz, alegia, eriez eta hauen sendabideez (ik. 2.T), baizik eta analista sakon gisa, gerrak sortu ekonomia gora beharak ongi ikertu eta salatu dizkigu, zerga igotzeak gerra diru xahuketak ordaintzearrean, eta beste hainbat xehetasun.

Hona adibidez zer nolako Pariseren itxura ematen digun:

Kurrinka puxka bat baderabila hemen jendeak, baina ez lotsatzekorik. Teatreak astean bi egunez hetsirik egon behar; zinema delakoak ere ba, hain laket baititu hok jende xeheak; sukrea izariz; alkool erretzeko xortarik ez; petroliorik ez baterere; gaza xuhur; elektrika neurtua; ostatueta bi haragi mota baizik ez haizu; pastizeriak astean bi egunez hetsiak; esnea gutisko; halaber burra eta arroltzeak; jan-edan guziak, oro ez idurika, beti goiti joaki; soseko kazetak bi paietan: bada hor, aitor dezagun, zertaz errangura. [113].

Kazetaz, liburuez, aurrerapen teknikoez, gerla ondoko laborantzaz eta garai berriei egokitu beharraz sakon ari zaigu ere. Esate baterako nork pentsa 1919. urtekoak direnik hitzok hozkailuez?:

“Viande frigorifiée” delakoaren estakuru bakarra hau da, abere sendo eta ederretik delarik, eltzean edo zartainan ezarri baino lehen, behar baitu hogoi-ta-lau orenez utzi gesaltzera ezteki, eta gozatzera. Dilindan, aldiz, badagoke andeatu gabe, behin eta behin.

Aipatu arak, indar baluke berdin arrainkiaren beiratzeko, Frantziako leihor bazterrean hamarretarik seiak itsas hegi baitira, ez luke beraz guti balio.

Hortako behar litazke itsas-untzi bereziak, arrainen saretarik atera orduko, han berean hormatzeko. Bagon berezi batzuek ekar litzakete gero berehala hirietarat. Haragi, erdi gutiago aski bailitake hemen, arrainkia berdintsu hazkurri delakotz jendearentzat. Norbaitek noizbait etxera dezake hola beiratu arrainkia. Anartean beldurra dugu usteldurik galduko den oraino zonbait. Delako itsas untzietarik ez omen dugu oraino bihirik, eta badakizue negoziako untiak berak zoin ditugun xuhur. Guhauren eta geure pusken hart-hunatarendako behar dugu, gerla aitzinean nagi izan ginelakotz, hainitz urtez orai egon angles eta amerikanoen meneko. [231-232]

Beti entzungor egin izan diegu, tamalez, etxekoen aholku azkarren eta interesgarrienei. Gerra amaitutakoan 1919. abuztuaren 22an Alduden gerlariaren ohoretan antolatutako bes-tan mintzaldi eder bat zuzendu zien Etcheparek herritarrei, goraipatuz Baigorriar, Urepeldar, Bankar eta Aldudar gazteak, ezen muga hain gertu izanagatik ez zioten Parisetik etorri oihu saminari gor egin, nahiago izan zutelako beren odola isuri, eta alemanen presondegiatako egoitza gogorra pairatu benetazko libertateagatik, eginbideari uko egin baino.

Hitz pollitak eta errepikatuko zituenak 1923. maiatzaren 13an Aldudar hamaika eroriren, hilen alde egin zeremonioan, Etchepare jaun medikua mintzatu zen berriro eta ideia berdintsuak erabiliz, nola muga ondoan bizirik eta Espainian bakea ez zitzaieen gogora etorri ihes egiteko xederik. Lotzen zituen ere, noski, Frantziako delako *patrie* eta euskarazko *aberria*,

... erran nahi baita, arbasoen lurra. Arbasoen lurra guretzat lehenik Euskal Herria; bainan Euskal-herria, bere ñimiñoan eratxikia izan denaz geroz, eta aspalditik, Frantziari, gure aberria hedatzen da Euskal-herriko zedarrietarik harat, hartzen diela Frantzia garai-

tikoaren eremia. Euskaldun gira, eta orozbat frantses. Euskal Herriari zor balin badagoku gehienik gure bizipidia, Frantziari dagoku guziz zor gure adimenduko argia... [258]

Etabar, etabar, etabar. Garaiko ohiko solasa zen, apez ala mediku izan, gerra egin zuten guztiek sentitzen baitziren harro bere frantses soldado izateaz, askok ez bazuten memento lazgarri haiek oroitu nahi ere. Baina Barbierrek 1929 agertzen duenean Piarres eleberriarren bigarren zatia *Gure Herria*-n eginen dion kritika “Eritzi eta kitzika” sailean Etcheparek nahiko sakon eta zuzena dela uste dugu. Lehenik gorai patzen du Senpereko erretoraren euskara laino, arin eta gozoa, baina berehala bi akats handisko aurkitzen dizkio. Bat, ahaztu egin dituela “gerla izigarri hartako ipizta eta iturburuak”, ez dituela erakusten erresumen arteko haserreak, ez eta zer aitzakiaz ziren bat bestearen ondotik gerran sartzen, espainolek itsaspeko aleman untziei eman zieten laguntza, ez Italiaren, ez Rumanianaren, ez Ingalaterraren, ez eta itsasoaz bestaldeko gerlakide berantiarrez ez duela deus esaten. Bigarren akatsa, ez dugula ikusten nolakoak ziren gerrako eskualde aipagarrienak. Marneko eskualdea, Verduneko, Sommekoa, Champagnakoak merezi baitzuketen luzaz edo aldarte-ka berri gehixeago. Eta azkenik, maiz tartekatzen dituen bertsoez, dio, maiteago duela solas bakunean, alegia, prosaz ari denean, hitz lauzkaria neurtizlea baino.

Etchepareren euskarari eta idazkerari begiratzen baldin badiogu Piarres Lafitterekin esan dezakegu Hiriart-Urruty eta Abbadie-ren jarraitzaile dugula, XX. mendeko idazle nagusietarik bat, non ez dugun iparralde honetan idazle nagusia:

*Etchepare mirikuaren eskuara segurik burua gora badaguke nun nahi; ez dio frantse-sari berari deus zorrik ez soinez ez soinu: jaun emaiten du; usaian baino jaunago menturaz; ez ordean behin ere jaunegi, aberastu berri ergelaren pare*²⁰.

Eta Koldo Mitxelenaren hitzez: *su espíritu abierto, lleno de curiosidad fue adecuadamente servido por un estilo esmerado, atento siempre a confirmar con exactitud los matices del pensamiento*²¹.

Elissalde eta Etcheparez aparte zertxobait mintzatu baikaituzue ere Jean Saint-Pierre, eta Piarres-Lafitteren obrez hamalauko gerlaz, kronikez aparte eleberrigintzan eta teatroan izan zuen oihartzun zenbaitez, euskal operan izan zuenaz aipatu gabe ez nuke amaitu nahi.

1921ean maiatzaren 8an Donibane Lohizuneko Magic Cinema-ren aretoan, Charles Colinen musikaz eta zuzendaritzaz eta Etienne Decrepten hitzekin ekitaldi bakarreko opera bat jokatu zen, programak zioen bezala “Interprété entièrement en Basque”. Obra: SEMETCHIA²². Gaia zela eta *Gure Herria*n kritikatu izan zen, baina Decrept-ek²³ berak erantzun zuen esanez, ez zela haur besoetakorik ipar Euskal Herria zioenak gaizki informaturik zegoela, berak hamaika gazte ezagutzen baitzuen horrelako, bai Donibane Garazin, bai Kanbon, bai Getarín, bai Bidarten eta beste hainbat lekutan ere gerraren ondorioz horrela gelditu zirenak. Hauxe zen, bada, gaia, eta gerrara zihoazenei “Semetchian” honako hau gomendatzen zitzaien:

Izan hadi bethi eskualdun,
ixil, zuhur eta bihotzdun.

20. Piarres Lafitte, *Euskal Literaturaz*. Ed. Patri Urkizu, Erein, Donostia, 1990, 26.

21. Luis Michelena, *Historia de la literatura vasca*. Minotauro, Madrid, 1960, 155

22. Etienne Decrept, *Semetchia* BSCLAP, 1923, 228-270

23. Patri Urkizu, “Euskal antzerkia iparraldean (1867-1939)”, *Eskual Antzertia. Le théâtre basque*. Ed. Pierre Bidart et Txomin Peillen, Université de Pau et des Pays de l’Adour. Baiona, 1987, 39-51.

Eta lapurtarrez bezala baxanafartarraz mintzatu baikara ezin amaitu dezakegu xuberotarrez hitzik egin gabe. Hor ditugu, adibidez bi koblakari handi, ia ezezagunak gure artean, baina garaian oso estimatuak Zuberoan. Bat Jean Baptiste Borthiri, atharraztarra dugu, gerlan zauriturik izan zena, eta sekulan bere bertsoen publikatzeko arrenkurarik izan ez zuena; eta bestea Louis Ligueix (1901-1940) larrañetarra. Hona errejimentuan hartzen zuten kafeaz dioena Batistak:

Kafiaz bereheziki badie ürgüllü
Egünian bi pinta bakhotxak badüğü:
Gozo samin azkarra-ezta miraküillü
Guillaume-ek baizik nurk dü hori phensatü
Garagar eta ziri errez hura die beltzatü²⁴.

Noski, Guillaume hori Gilermo Ila dugu (Potsdam, 1859 - Doorn, Herbehereak, 1941) Alemania gerlan sartu zuena. Bertso anonimo batzuek honela aipatzen dute, Sarajevo-ko krima, hau da, Frantzisko Fernando artxidukearen heriotzaren eta gerraren eragilea, funtsean lehengai-iturriak eta kolonien banaketa kontrolatzea zen arren, aipatu ondoren:

Hik Belgika bilautsi Gillaumé krudela,
Han odola iresi otsuec bezala,
Gero Paris alderat burrunban hiz sarthu
Han hire arabera beharrez baskaltu.

Eta hona Luis Ligueixen, koblakari larrañetarraren bertso elebidun eta umorez beteak, non biltzen diren alde batetik, gerra kontrako izpiritua (*nous n'avons plus de guerre ez eta beharrik*) eta bestetik, euskaldun-frantsesen gerra harrotasuna:

ZERBUTXU DENBORAKO KHANTORIA

1. Khantatzera nuazü *une jolie chanson*,
Hura nurk huntü beitü *c'est un brave garçon*,
Deithürik izan düzu *dans une garnison*,
Arren behar phartitu *bientôt de sa maison*.

2. *Moi je suis né en France* oi Euxkal Herrian,
D'après ce que je pense, Larrañe herrian:
Bientôt c'est la partance guatzen gustian
Faire la pénitence errejimentian.

3. Frantzian sorthü denak *garde ses intérêts*,
Nahiz soldado denak *ne les a désirés*;
Ezaxolegi denak *aux rangs de nos armées*,
Eztüzke hoberenak *les jours qu'il doit passer*.

4. *Il ne faut pas s'en faire* ez odol gaixtorik,
Moi je ne m'en fais guère hoi en oen gatik.
Nous n'avons plus de guerre ez eta beharrik,
Car elle est trop amère en'ustez segürrik.

5. Gerla ürhentü zaikü *sans l'avoir regretté*,
Azkenian irabazi *l'avant bien mérité*;
Alsace eta Lorraine *ont été rachetées*.
Botz gitian haieki *vive la liberté!*

24. Igela, euskaldun heterodoxoen errebista. Paris, 1963, nº 3, 106.

6. *Guillaume de la Prusse* enpreadorea,
Pour toi c'est la culbute, traidore handia!
Amène dans ta chute seme Konprintzia,
Pour qu'une fois débute traidoren galtzia.

7. *Ardietsi dütügü la paix, la liberté*,
Boxen nausi ohia *battu et abdiqué*;
jakin balü berria, *il s'en serait gardé*,
Biba Foch-en eskia *et les poilus français*.

8. *Ils ont eu du courage* Boxen ohiltzeko,
Qu'ils s'ent aillent en rage habo ez jiteko!
Pendant tout ce carnage miseria franko.
Que le ciel soit pour gage hil direnentako.

9. Gerlak ützi deikü *de tristes souvenirs*,
Denek zunbat kolpatü *nous avons vu venir*;
Beste hanitx baratü *que l'on a fait périr*,
Zorthiak kundenatü *à ne plus revenir*.

10. *Je ne voudrais pas faire* sobera phenarik,
Mais je ne puis me taire erran-gabetarik
Que j'ai perdu un frère, zorthie trixtekorik,
Après quatre ans de guerre, zerbait ikhususirik.

11. Juaiten girenian *nous ne les verrons plus*,
Hexak baizik ordian *de ceux qui ont vécu*.
Phausa zite bakian, *les Boches sont battus*,
Trankil pharadüsian, *c'est Dieu qui l'a voulu*.

12. *S'il nous refont la guerre*, eztükie hoberik,
La France notre mère eztate galdürik;
Nous vengerons nos frères lotsa gabetarik,
Car la mort n'effraie guère Eüxkaldun semerik.

Bertso mota honek badu tradizioz gaborik gabon kantetan esate baterako, eta iparraldean ez ezik (Arnaud Haranburu, ziburuko xantrearen KRINOLINAK²⁵, adibidez), hegoaldean ere (Eusebio Maria Azkueren LAS MERCADERES DE FRESCO DE MUNDACA²⁶).

Ezin utzi ditut ere bederen aipatu gabe Antonio Zavalak bildu zituen²⁷ aliadoen aldekoTxirritaren bertsoak, I.R.T.-en alemanzaleak, Joxe Garmendia eta Jose Sarasola "Lexo"ren bertso bakezaleak, Enbeitarenek Beljikaren alde, etabar.

25. Des couplets bien jolis / noha paratzerat, // Des compliments pour femmes / ongi aphaizterat // Celui qui veut sera libre / irri egiterat // Avec ardeur je m'en vais / lanari lotzerat..., in *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak*, II. 1545-1900. Ed. Patri Urkizu, Etor, Donostia, 1991, 529.

26. Las hembras en Mundaca / Loiao gauontzac / Que tienen mucho orgullo / Eta min zorrotzac. / metidas, y no en casa / Arratsalde erdiric / En drogas y en embustes / Gorputzac gueldiric..., *Poesía Bascongada. Dialecto vizcaino*. Ed., Jon Kortazar et alt., Bizkaiko Foru Aldundia, 1987, 208.

27. Antonio Zabala, " Bertsolariak eta Europako lenengo gerratea (1914) (Gure erriaren literaturaren erakusbi-de)", *Euskera*, IV, 1954, 183-206.

Mereziko lukete denek, noski, hala ipar nola hegoaldeko idazleen testu guztiek, edo bederen behar bezala plazaratuak ez direnek, edota hamalauko gerraren inguruan bilduak ez direnek aurkezpen bat hemen egindakoa baino hobea eta libururen batean agerraraztea sakonago ikus eta azter ditzagun historia, ideologia eta literaturaren arteko harremanak. Hemen iradoki baizik egin ez duguna aztertzea hobeto, alegia, laborari xumeek, apezek eta medikuek, hots, herriko gizatalde ezberdinek nola ikusi zuten hamalauko gerra, soldado eta mandoen mundua, desertoreen eta umezurtzena, herri zapalduena, eta zeinen alde parte hartu zuten ikustea. Bego beste baterako idekita aztergaia.

Bukatu dut. Mila esker zuen arretagatik.